



# ARRAZTALO ELKARTEA

2015 urteko txostena

# AURKIBIDEA

## SARRERA

### 2015 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA

#### Lan eta gizarte integrazioa Oiartzunen

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016rako lan ildoak

#### Oarsoaldeko proiektua

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### Ekintzaren balorazioa

##### 2016rako lan ildoak

#### Kontsumo taldea

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016rako lan ildoak

#### Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### Ekintzaren balorazioa

##### 2016rako lan ildoak

#### Material didaktikoaren egokitzapena

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016ko helburuak

#### Enplegu Zentro Berezia

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016rako lan ildoak

#### Hitzaldiak

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016ko lan ildoak

#### Jarraipen bilerak

##### Helburuak

##### 2015eko ibilbidea

##### 2016ko lan ildoak

#### Beste ekintzak

## ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

DIRU-KONTUAK

Balantzea

Diru-sarrerak

Gastuak

# SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkartearen 2015eko ekintza nagusien laburpena jasotzen da. Batetik, Arraztalok sustatu, antolatu edo parte hartu duen ekintzen laburpena eta balorazioa egiten da.

Bestetik, diru-kontuak azaltzen dira, diru-sarrera eta gastuen arabera sailkatuak.

## 2015 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA

### Lan eta gizarte integrazioa Oiartzunen

#### Helburuak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen eta herritarren harremanak bultzatzea eta sendotzea.

#### 2015eko ibilbidea

Gaixotasun psikikoa duten hiru langile eta arduradun bat, Petra Lekuona, Altzibar eta Ergoingo baratzetan lanean aritu dira.

Hiru langile horietako bati, familia egoera aldatu zaio, amaren heriotza dela eta. Ondorioz, moldatze denbora bat behar izan du, etxeko gaiak berrantolatu arte. Kontuan hartu behar da, langile honek bere gain hartu duela mendekotasuna duen ahizpa baten zaintza, horrek egoera zaildu duelarik. Familiako beste kideen eta sendagileen laguntza jaso du. Arraztalotik egoera berrira egokitzeko behar izan dituen baimenak eman dizkiogu eta ahizpa horren zaintzan laguntzeko etxez-etxeko zerbitzuetan eskaera egiteko laguntza eskaini zaio.

Laugarren langile bat bere lanpostutik joan-etorrian ibili da, osasun arazoak direla medio. Bere gaixotasunak ez dio lanerako egonkortasun bat lortzen utzi, dena den urte osoan zehar

Arraztalok harremana mantendu du, bai langilearekin baita familiarekin ere. Saiakera ugari egin ditugu Arraztalotik eta familiaratik psikiatra ezberdinen bidez, egoera egonkortzeko. Ondoren azalduko den Oarsoaldeko proiektuari esker, langile berriak etorri dira, eta talde berriak, aipatutako langileari pixkanaka berriz ere lan errutinan integratzen lagundu dio. 2016an bere egoera egonkortzea eta lanaldi osoz beste taldekideekin lanean hastea espero dugu.

Azkenik, aipatu behar da langileen arduraduna psikologo batekin bere lanaren gainbegiraketa eta jarraipena egiten hasi dela. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen lana kudeatzeak eta lan egiteak sortzen dizkion kezka, zailtasun eta oztupoak gainditzeko psikologo batekin astero biltzen da. Horrela, langileekin duen harremana eta talde dinamika hobetzeko tresnak eta baliabideak garatzea da helburua. Langileek ere horrelako terapia baten beharra dutela uste dugu, euren lanaren eta tratamenduaren gehigarri dena. Diru-laguntza ugari eskatu ditugu horretarako, baina ez ditugu lortu. (ikusi Eskatutako dirulaguntzak atala)

## 2016rako lan ildoak

- Gaur egun daukagun taldea egonkortzea eta giroa hobetzea. Laugarren langilearen egoera egonkortzea lortu nahi dugu, Oarsoaldeko proiektuak beregan izan duen eragin positiboa baliatuz.
- Langileen arduraduna psikologoarekin egiten ari den lanari jarraipena ematea. Tresnak garatzea eguneroko lan dinamikan sortzen diren zailtasunak gainditzeko. Tresna horiek praktikan jartzea.
- Langileen bilakaeraren jarraipena egiteko tresnak garatzea. Langileen egoeraren bilakaera, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroko profesionalekin, Oiartzungo Gizarte Zerbitzuekin eta senideekin aztertzeke dinamika sortzea.

## Oarsoaldeko proiektua

### Helburuak

- Gaixo psikikoen lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak sustatuz, baratzak sustatuz.
- Oarsoaldeko Udalen, Oarsoaldea Garapen Agentziaren, Foru Aldundiaren (Gizarte Politikako Departamentuaren bidez), Beraungo Osasun Mentaleko Zentruaren,

Oarsoaldeko gaixo psikikoen senideen eta Arraztalo Elkartearen parte hartzea sustatzea, aurreko atalean aipatutako proiektua antolatu eta garatzeko.

- Proiektuaren planikazioa eta jarraipena egitea 2016 urterako.

## 2015eko ibilbidea

2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak Oarsoaldean martxan jarri zuen aurrekontu parte-hartzaileen ekimenean, eskualdean arazo psikikoak dituzten pertsonen lan-integrazioa bultzatzeko proposamena aukeratu zen.

Proposamen horri edukia eta itxura emateko, Foru Aldundiak, Arraztaloko kideok prozesuan parte-hartu genuela jakinik, proposamena garatzeko eta proiektu bat aurkezteko eskaera egin ziguten.

Foru Aldundiari aurkeztu genion proposamena I. eranskinean dago. Laburbilduz, proiektuaren ekintza nagusia eskualdeko herri bakoitzetik gaixotasun psikikoa duten bi pertsona hartu eta Oiartzunen erabiltzen dugun eskemari jarraituz, lan-integrazioa bultzatzea zen. Gaixotasuna duten pertsonen integrazioa lortzeaz gain, beste herrietan gaixotasun psikikoaren inguruan herri mugimenduak sortzea ere bazen helburua.

Dagoeneko Arraztalon lan egiten duten langileei, beste sei langile eta arduradun berri bat gehitu zitzaizkien, ekainetik azarora bitarte. Hau gauzatzeko, Foru Aldundiak aurrekontu parte-hartzailetan 50000€ gorde zituen. Lortu ez ziren arren, Arraztalok beste hiru herrietako udal bakoitzak 5000€ gehiago jartzea nahi zuen, proiektua udalek ere babesten zutela adierazteko.

Sei langile eta arduradun berria ekainetik azarora Arraztaloren langileekin batera baratzetan lanean aritu dira. Arraztaloko langileek egokitzapenean lagundu diete, askok ez baitzuten aspaldian lan errutinarik eduki. Nekazaritzan ere ez zuten lan esperientziarik.

## Ekintzaren balorazioa

Gaur egun, proiektua balorazio fasean dago. Hala ere, honako ondorioak aurreratu ditzakegu:

- Eskualdeko langileak Arraztalok eskainitako aukera eskertu dute, batzuk euren bizitzako lehen soldata jaso baitute.

- Senideek ere Arraztalok egiten duen lana ezagutu dute. Erreterria eta Pasaiako senideak prest daude euren erakundeen aurrean ikusgarritasuna lortzeko elkarteak sortzeko. Arraztalok duen esperientzia beste herrietan laguntzeko erabiliko dugu.
- Arraztalotik ez dugu jakin proiektua beste herrietako udaletan aurkeztu. Foru Aldundiko ekimen bat izan denez, udal gehienek euren plangintza hausten zuen zerbait bezala ikusi dute. Ideia orokorrarekin ados egon arren, ez dute esku-hartu nahi izan. Gainera, Udal-Hauteskundeek bete-betean harrapatu zuten proiektuaren hasierako fasea. Ondorioz, langile berriak aukeratzeko prozesua asko atzeratu zen. Azkenean, Beraungo Osasun Mentaleko Zentroko gizarte langileengana jo behar izan genuen. Bertan, langileen aukeraketa egiten lagundu ziguten, gaixoen egoera eta lanaren ezaugarriak kontuan hartuta. Proiektuaren bigarren fasea, langileen formazioarena, ekainean jarri ahal izan genuen martxan.
- Gaixotasun psikikoak sortzen dituen zailtasunak direla eta, langile gehiago kontratatzeak ez du esan nahi lan karga arinduko denik edo produktibitatea igo egingo denik. Langileek, lan ohiturak hartzeko eta besteekin taldean lan egiten hasteko denbora behar dute. Zailtasunak zailtasun, jatorri eta egoera oso ezberdinetako gaixotasun psikikoa duten pertsonak izanik, gehienak lanera ongi egokitu direla esan dezakegu, nekazaritzan esperientziarik ez izan arren. Hasieran aukeratutako sei pertsonetatik, bik ez zuten proiektuan jarraitu ahal izan, gaixotasunak eragindako krisiak izan zituztelako. Honekin ikusi ahal izan dugu, Osasun Mentaleko Zentroko sendagileekin, senideekin eta gizarte zerbitzuekin elkarlan estua mantendu behar dugula, horrelako programa batean sartzen diren pertsonen egoera berrira egokitzen laguntzeko eta osasun-jarraipena egiteko.
- Foru Aldundiak aurrekontu parte-hartzaileak eten ditu, eta ez dago aukerarik bide horretatik hurrengo urtetan finantziario lortzeko. Gizarte Politikako sailera bideratu dute gaia, eta abenduan Gizarte Politikako diputatuarekin bilera izan genuen. Buruko Gaixotasunari dagokion lan ildoetan eta planteamenduetan zer hobetua dagoela onartu ziguten Aldundian. Dena den, ez zen inolako konpromisorik lortu.

## 2016rako lan ildoak

- Erreterria eta Pasaiako senideak prest daude gaixotasun psikikoa duten pertsonen alde beraien ibilbidea hasteko. Argi dute horretarako tresna egokiena elkarte bat dela. Elkarte horren sorreran laguntzea eta Arraztaloren esperientzia erabiltzea izango da Oarsoaldean izango dugun lehen erronka.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Sailarekin elkarlana eta komunikazioa mantentzen saiatuko gara.
- 2016ko martxoaren 31 bitarte dugu, proiektu honen memoria prestatu eta Aldundian aurkezteko.

## Kontsumo taldea

### Helburuak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-sasoiak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konprometua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

### 2015eko ibilbidea

Gaur egun kontsumo taldeak 35 kide ditu. 2015ean itxaron zerrenda dezente jaitsi da, eta gaur egun izen ematen denetik bataz-beste bi hilabete itxaron behar dituzte, taldean sartu aurretik.

Kideen joan etorria ere handitu egin da. Partaideek zailtasunak dituzte Arraztalok eskaintzen duen ordutegia eta antolaketa jarraitzeko. Honen aurrean, formula berriak aztertzen hasi gara banaketarako, baina argi dugu, kontsumo taldeak kontsumo eredu berri bat jarraitu behar duela, eta Arraztaloko gaixotasun psikikoa duten pertsonen gizarte integrazioa bultzatzeko tresna izan behar duela. Horregatik, banaketa pertsonalizatuagoak (ordutegi eta leku bereziekin) ekidin nahi ditugu, talde egitura ez galtzeko. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen herritarrekin duten kontaktua mantendu behar dute, gizarte integrazioa lortu nahi badugu. Hori lortzeko, Kontsumo Taldearen jarduerak ezinbestekoak dira.

Barazkien produkzioari dagokionean, urtea oparoa izan dela esan dezakegu. Gaixotasun psikikoa duten pertsonekin lan egitea eta 35 pertsonako kontsumo talde batentzat baratzak kudeatzea ez da erraza. Bide horretan pausoak ematen hasi gara eta 2015eko neguan 2014ko neguarekin alderatuz, plangintza eta ekoizpen hobea izan dugu. Horrez gain, kontuan hartu behar da Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluarekin ziurtagiri ekologikoa lortzeko bi urteko prozesuan gaudela.



Lehenengo urtea pasa dugu, eta urte bukaeran ENEEKetik konbertsio prozesua aztertzeraz etorri ziren. Azterketa honetatik honako ondorioak atera ditugu:

- Landareak eta haziak erosteko zailtasuna dugu. Mintegi ezberdinetatik landareak eta haziak erosten joan gara, batez ere Blaseneatik eta Karabelekotik. Dena den, ez dugu uste guk jorratu nahi dugun jasangarritasun eta elikadura burujabetzaren bidean, 60 km-ko joan etorria egin behar izatea (Blasenearen kasuan) egokia denik. Karabelekoren kasuan berriz, udan arazoak izan ditugu, ez baitzuten landarerik lortzen saltzeko.
- Askotan herriko mintegietara jo izan dugu landareak erostera, eguneroko dinamika eta plangintzan azkarrena eta errazena izan delako. Herriko mintegietako batek ahalegina egin du beste mintegi ekologikoetatik produktuak ekartzeko, jakin badakitelako eskaera eskualdean badagoela. Ahaleginak ahalegin, ez dute lortu eskaintza egonkor bat lortzeko banatzailerik aurkitzea.
- Gaixotasun psikikoa duten langileekin dagoen lan dinamika kontuan hartuz, landare eta hazi ekologikoen erosketa beste modu batean antolatu beharra dago. Prozesu horrek azkarra eta gertukoa izan behar du.
- Laboreen liburua betetzeko ahaleginak egin ditugu eta lehenengo urtean datuak biltzea eta era txukun batean gordetzea lortu dugu.

## 2016rako lan ildoak

- Etorkizun labur batean, kontsumo taldea handitu ahal izateko eta gure antolaketa hobetzeko, laugarren baratza jartzeko lursail baten bila gabiltza.
- Kontsumo taldea handitzea, langileen lan baldintzak eta ahalmenak kontuan hartuz.
- Ziurtagiri ekologikoari dagokionean, bigarren urterako helburua kate guztiko datuak lotzea izango da, hau da, landareak erosi direnetik, kontsumo taldean banatu diren arte bildu diren datu guztiak elkar lotzea. Horrek, faktura zenbakiak, landaketa datekin eta eremuekin, bilketa datekin eta banaketa datekin erlazionatzea eskatuko du. Horretarako beharrezkoa da pertsona bakarrak eguneroko jarraipena egitea.
- 2015ean erabilitako hazi eta landareen zerrenda eginda, 2016 urterako beharrezkoa duguna jakin ahal izango dugu. Horrela, urtaro bakoitzean behar ditugun hazi eta landareen eskaera aldeztu aurretik egingo dugu. Honekin, mintegietara maiztasun gutxiagorekin joango gara, denbora eta baliabideak aurreztuz.

- Hazi propioak lortzeko prozesua hasiko dugu. Duela hiru urte, eskaintzaren eskasia ikusirik, hazitegirako gure mintegia jartzeko ideia lantzen hasi ginen. 140 m<sup>2</sup>-ko mintegi baten egitura dugu eta laster martxan jarriko dugu.
- Laboreen liburuarekin jarraipen integrala egiteko sistema hobetzen jarraituko dugu. Horretarako, hazien eta landareen erosketa, landaketa, bilketa eta banaketa albaran zenbakiarekin lotu beharko ditugu.

## Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

### Helburuak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana baliatuz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

### 2015eko ibilbidea

Aurreko urtean bezala, herriko ikastetxetako ikasleak eta udalekuetako haurrak baratzetara bisitan etorri zaizkigu.

Ikastetxetako ikasleak goiz bakar bat etorri dira eta Arraztaloko langileekin batera nekazaritza lanetan aritu dira. Barazkiak landatzeko eta baratzean lanean aritzeko materiala prestatu zaie.

Udalekuetako hurrekin berriz, plangintza osatuagoa garatu ahal izan dugu. Baratzetako lana ikusteaz gain, Arraztaloko egoitzan ere izan ziren. Bertan, bideo bat ikusi eta elkarteari buruzko azalpenak entzun ahal izan zituzten. Buruko osasunari eta gaixotasunari buruzko oinarrizko ideiak ere jaso ahal izan zituzten. Arraztalorentzat bisita hau oso baliagarria izan zen, gaur egungo hurrek buruko osasunari buruz duten jakintza neurtzeko.

### Ekintzaren balorazioa

Bisita hauetatik Arraztalon hausnarketa prozesu bat hasi genuen, buruko osasunari hezkuntzan presentzia handiagoa emateko ekintzak aztertu nahian. Baratzetako bisitak, ondoren ikastetxetan buruko osasuna eta buruko gaixotasunak lantzeko aitzakia izan

daitezkeela uste dugu. Hau da, baratzetan ikusitakoak ondoren ikastetxetan lanketa bat behar duela uste dugu.

Hori dela eta, buruko osasunari buruzko material didaktikoa sortzeko prozesua martxan jarri genuen, apirilean.

## 2016rako lan ildoak

- Ikastetxeetatik ditugun bisitak egonkortzea eta ikaste programan Arraztaloren baratzak txertatzea.
- Baratzetan egiten den prozesua hasieratik bukaerara erakustea, landaketatik kontsumo taldean barazkiak saltzen diren arte. Horretarako, ikastetxeekin aztertu beharko dugu ikasleak kontsumo taldearen banaketa ikustera joaterik izango luketen gurasoekin.

## Material didaktikoaren egokitzapena

### Helburuak

- Buruko Osasunari eta gaixotasun psikikoei buruzko oinarritzko ezagutzak ikastetxeetan zabaltzea.
- Irakasle eta gurasoei hurrekin buruko osasuna lantzeko euskarri bat ematea.
- Baratzetako bisitei jarraipen bat ematea ikaste programan buruko osasunari buruzko ezagutzak txertatuz.

### 2015eko ibilbidea

Buruko Osasunari buruz herritarrok dugun sentsibilizazioa handitzeko, hezkuntza komunitatearekin elkarlana behar-beharrezkoa da. Arraztaloren kasuan, baratzetara egiten diren bisitak lan horren lehenengo pausoa izan dira.

Dena den, ez dakigu zenbateraino lotzen duten ikasleek baratzetako nekazaritza lana, gaixotasun psikikoa duten pertsonen lan integrazioarekin. Horregatik, eskoletan buruko osasuna lantzeko material didaktikoaren proiektua martxan jarri dugu.

Ikastetxetan gaia landu behar dutela esan baino, nahiago izan dugu eurentzat baliabideak sortzen hastea. Horrek, ikastetxeekin ondoren egin beharreko lana asko erraztuko duela uste dugu. Gure inguruan eta beste herrialdetan sortu diren ikas materialak bilatzen eta

aztertzen ibili ondoren, Estatu Batuetako NAMI/Queens-Nassau erakundeak 1990 hamarkadan garatutako unitate didaktikoak egokitzeko erabakia hartu genuen.

Gaur egun, Arraztalo Elkarteko kideen eta ezagunen laguntzaz materialaren itzulpena, diseinua eta argitaratzea prestatzen hasi gara, jatorrizko egileen baimenarekin. Material hori oinarri hartuta, Arraztaloren nahia, ikasgeletan lantzen hasi baino lehen, guraso eta irakasleekin gaia lantzea da. Arraztalo zer den, buruko osasunak zer esan nahi duen, eta herrian buruko gaixotasunak sortzen dituen arazoak azaldu nahi ditugu, hezkuntza komunitatea zertaz hitz egiten ari garen jabetu dadin.

Gure helburua ez da inori inolako ikasgaiak ematea, gu ez baikara profesionalak. Buruko osasuna, osasun fisikoa bezala, zaindu egin behar dela, eta buruko osasun arazoak dituzten pertsonak era badaudela azaldu nahi dugu, gaixotasun psikikoen jatorriari edo tratamenduei buruzko eztabaidak alde batera utzita.

Materialaren itzulpena eta egokitzapena egiteko hainbat diru-laguntza eskatu ditugu (Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian), baina bat bera ere ez digute onartu.

## 2016ko helburuak

- Material didaktikoaren egokitzapena bukatzea. Batetik, itzulpenaren zuzenketa egin behar dugu. Bestetik, material didaktikoan gaixotasun psikikoari buruz ematen diren datuak gure herriko edo eskualdeko datuekin osatu behar ditugu.
- Material didaktikoaren diseinu grafikoa egitea.
- Ikastetxeekin batera material didaktikoa ikastek programan txertatzeko lehenengo pausoak ematea.
- Material didaktikoa 2016-2017 ikasturte hasierarako prest edukitzea.

## Enplegu Zentro Berezia

### Helburuak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikitzea.

## 2015eko ibilbidea

Enplegu Zentro Berezia da Arraztaloren egonkortzea lortzeko tresna nagusia. Aurreko urtetan bezala, oraindik Eusko Jaurlaritzak legedia garatu ez duenez, gaia erabat geldituta dago.

2015eko urriaren 29an Arraztaloko langile eta senideak, eta baita eskualdeko senideak ere Eusko Legebiltzarrean izan ginen, Enplegu Zentro Bereziei buruzko mozio bat aurkeztu baitzen bertan. Oiartzungo Udaleko ordezkari bat ere han izan zen. Mozio horrek, honakoa eskatzen zuen:

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala bi hilabeteko epean administrazio-marko bat enplegu-zentro bereziak kalifikatzeko eta erregistratzeko, sindikatuen eta eragileen parte-hartzearekin.
2. Zentro horientzako 2015eko ekitaldiko diru-laguntzen aginduek kontuan izango dituzte inskripzio-eskatzaileak, baldin eta erregistroa ekitaldiaren barruan urtarrilaren 1eko ondorioekin formalizatzen badute, eta onuradun izan daitezke eta diru-laguntzak jasotzeko eskubidea eduki, nahiz eta diru-laguntzen aginduak inskripzioa egin aurretik argitara eman”.

Mozioan aurkeztutako jatorrizko testua onartu zuen legebiltzarrak, PSE eta EHBilduren aldeko botoekin. EAJk lehenengo puntuan alde egin zuen, bigarrenean berriz ez. Ondorioz, hiru alderdi politikoek Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten bi hilabeteko epean administrazio-markoa sor zezala.

Gaur-gaurkoz, bi hilabete pasa dira eta guk dakigula legedia ez dago garatuta.

## 2016rako lan ildoak

- Mozioa aurkeztu zenetik bi hilabete pasa direnez, legebiltzarrean berriz ere gaiari buruzko galdera eskatuko dugu.

## Hitzaldiak

### Helburuak

- Herritarrak buruko osasunari eta gaixotasun psikikoei buruz sentsibilizatzea.
- Buruko osasunaren esparruan lan egiten duten profesionalen lana ezagutaraztea.

## 2015eko ibilbidea

Aurten lau hitzaldi antolatu ditugu.

Lehenengoa, urtarrilean, orduko Arartekoarekin, Iñigo Lamarkarekin izan zen. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera gurean zein den azaldu zuen. Arraztaloren webgunean [hitzaldiaren laburpena](#)<sup>1</sup> irakur daiteke. Ekintza honetan 40 bat pertsonak parte-hartu zuten.

Beste hiru hitzaldiak Erreterian izan ziren urrian. Oarsoaldeko proiektuaren baitan, eskualdean Arraztaliari ikusgarritasuna eman eta beste herrietako senideak erakartzeko antolatu genituen hitzaldi hauek. Lehenengoan, Alvaro Iruin psikiatrak, gaixotasun psikikoei buruzko oinarritzko ideiak eman zituen. Bigarren hitzaldian, Juan del Pozo psikologoak, Erreteriarako Osasun Mentaleko Zentroan egiten duten lana azaldu zigun, batez ere terapia komunitarioarekin zer ikusia duten gaiak izan ziren. Azkeneneko hitzaldian, beste herrietako senideak eta Arraztaliari Elkarteak izan ginen gure ikuspuntua eman genuenak, eta eskualdean gurea bezalako elkarteak sortzeko aukeraz hitz egin genuen. Dozena erdi pertsona zerrenda atera genuen, etorkizunean gauzatu beharreko prozesuan parte hartzeko.

## 2016ko lan ildoak

- 2016rako helburua gutxienez bi hitzaldi antolatzea izango da.
- Hitzaldietarako interesgarria ikusten da, haurren eta nerabeen buruko osasunaz hitz egingo duen norbait ekartzea.

## Jarraipen bilerak

### Helburuak

- Hilabetero Arraztaliari esku artean ditugun gaiak kideen artean aztertu eta proposamenak jasotzea.

---

<sup>1</sup><https://arraztaliarielkartea.wordpress.com/2015/01/29/edonori-gerta-dakioke-ararteko-buruaren-hitzaldiko-laburpena/>

## 2015eko ibilbidea

Azaroan egin genuen lehenengo jarraipen bilera. Ordutik, hilabetero lau bat pertsona biltzen aritu gara, momentuan zeuden gaiak azaldu, aztertu eta lan ildoak erabakitzeko.

## 2016ko lan ildoak

- Bileretan Arraztalo elkarteko kideen eta kontsumo taldeko kideen parte hartzea handitzea.
- Momentuan egin beharreko lanetan ahalik eta jende gehien inplikatzeari.
- Urteroko Asanblada Orokorraz gain, Arraztaloko kideak biltzeko aukera sortzea.

## Beste ekintzak

Aurreko urtetan bezala, Arraztaloko kideok herriko jardueretan parte-hartze aktiboa izan dugu. Udaleko Gizarte Hezkuntza Kontseiluan, nekazaritzaren inguruan herrian sortu diren ekimen ezberdinetan eta Jai Batzordean izan gara. Iturriotzeko festetan, Xanistebanetan eta Txerri Egunean ere postuak izan ditugu. Udalarekin sinatutako hitzarmenean aipatzen den moduan, herriko jardueretan parte-hartzen jarraituko dugu, eta guk antolatzen ditugunak Oiartzuarrentzat irekiak eta doan izango dira.

# ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Jarraian, 2015ean erakunde publikoei eskatutako diru-laguntzen zerrenda ikus daiteke.

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharrak
Oiartzungo Udala	40200 € + 5000 €	Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa	BAI	Oiartzungo Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan adostutako diru-laguntza
GFA <sup>2</sup> : Aurrekontu parte-hartzaileak	50000 €	Gaixotasun psikikoa duten	BAI	2015eko aurrekontu parte-hartzaileen baitan

<sup>2</sup> GFA = Gipuzkoako Foru Aldundia

		pertsonen lan eta gizarte integrazioa sustatu eta garatzea		sinatutako hitzarmenaren baitan adostutako diru-laguntza
GFA: Gizarte esku hartzeko programak egiteko diru laguntzak	7600 €	Gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa hobetzeko terapia psikologikoa	EZ	Ezezkoaren arrazoia: Erakunde eskatzaileak lankidetzan hitzarmen bat sinatuta du Gizarte Politikako Departamentuarekin (Oarsoaldeko Proiektuari dagokiona).
GFA: Prebentzioko eta sensibilizazioko programak egiteko diru laguntzak	9920,94€	Buruko osasuna eta buruko gaixotasunak zer diren azaldu eta osasuna zaintzearen garrantzia azpimarratzeko material didaktikoa	EZ	Ezezkoaren arrazoia: Tokiko mailako jarduera
EJ <sup>3</sup> : Osasun Saila. Gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak	7600 €	Gaixo psikikoen lan integrazio programarentzat terapia osagarria	BAI 1.926,90 €	Ez da diru-laguntza onartu. Diru-laguntzaz gain jarri beharreko diru kopurua ezin da ziurtatu.

<sup>3</sup> EJ = Eusko Jauraritzza



susta daitezen diru-laguntzak				
EJ: Gizarte Politika. Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatutako esku-hartze sozialeko jardueretarako diru-laguntzak	7600 €	Gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa bultzatzeko terapia psikologikoa	EZ	Ezezkoaren arrazoia: Aurkeztutako jardueraren xedeak ez du bat egiten laguntza ildo honen xedearekin.

# DIRU-KONTUAK

## Balantzea

DATA	KONTZEPTUA	SARRERA	GASTUAK	BALANTZEA
2015-01-01	KUTXA K.K.			1.152,93 €
2011-01-01	CAIXA K.K.			1.183,82 €
2015-01-01	Guztira			2.336,75 €
<b>URTARRILA-ABENDUA</b>				
	<b>Kontsumo Taldea (Kutxa+Caixa)</b>	20.890,00 €	0,00 €	20.890,00 €
	<b>Baliabide propioak</b>	13.500,00 €	-2.000,00 €	11.500,00 €
	<b>Soldatak</b>	7.140,21 <sup>4</sup> €	-79.774,59 €	-72.634,38 €
	<b>IRPF</b>	0,00 €	-4.215,11 €	-4.215,11 €
	<b>Gizarte Segurantzza</b>	0,00 €	-30.136,18 €	-30.136,18 €
	<b>Udala</b>	45.200,00 €	0,00 €	45.200,00 €
	<b>Kutxa</b>	19,00 €	-19,00 €	0,00 €
	<b>Baratzak</b>	97,22 €	-7.230,66 €	-7.133,44 €
	<b>Aldundia</b>	50.000,00 €	0,00 €	50.000,00 €
	<b>Aseguruak</b>	0,00 €	-1.408,99 €	-1.408,99 €
	<b>Argindarra</b>	0,00 €	-68,77 €	-68,77 €
	<b>Ura</b>	0,00 €	-237,41 €	-237,41 €
	<b>Asesoría</b>	0,00 €	-1.459,26 €	-1.459,26 €
	<b>Caixa</b>	0,00 €	-51,78 €	-51,78 €
	<b>Beste</b>	110,24 €	-61,59 €	48,65 €
	<b>Guztira</b>	136.956,67 €	-126.663,34 €	10.293,33 €
2015-12-31	KUTXA K.K.			10.948,04 €
2015-11-30	CAIXA K.K.			1.682,04 €
2015-12-31	Guztira			12.630,08 €

<sup>4</sup> Soldata baten ordainketan bankuak egindako akatsa. Langileak bueltatutako dirua, diru sarrera moduan jarri da soldatetan.

## Diru-sarrerak

Diru sarrera nagusiak Kontsumo Taldeko kuotak, Udalaren diru-laguntza eta Foru Aldundiko diru-laguntza izan dira. Aipatu beharra dago, Foru Aldundiko diru-laguntza aurtengo berezitasuna izan dela Arraztaloren kontuetan. Hurrengo urterako ez da horrelako sarrerarik espero.

Aldundiak jarritako 50000€ gehiago horiek eduki arren, kontuan hartu behar da irailetik azarora 7 langile gehiago izan direla soldatapean, gaixotasun psikikoa duten 6 pertsona eta arduradun bat. Ondorioz, soldaten eta lanaren gaineko zergen gastuak ere igo egin dira.

Kontsumo Taldeko kuotak 20890 € izan dira, 2014ean baino %16 gehiago. Hori lortzeko Kontsumo Taldea 30 partaidetik 35 partaidera igo da.

Urte bukaerako ordainketei aurre egiteko, elkarteko kideek urtean zehar 13500 € jarri behar izan dituzte baliabide propio gisa.

## Gastuak

Gastu nagusiak langileen soldatak, gizarte segurantza eta IRPF zergak izan dira.

Baratzetan egindako lanak ere gastuak sortu ditu: tresneria, landareak, haziak eta ura. Aktibitate honek kudeaketa gastuak era baditu, aholkularitza eta aseguruetan. Langileek aurtan ere lan-arriskuei buruzko ikastaroak eta azterketa medikuak izan dituzte.